

**JOSE ANTONIO RETOLAZA,  
EUSKARAREN EKINTZAILEA  
UME EUSKALDUNAK ALFABETATZEN**

Udabarria bere seinaleak agertzen hasi zaneko, haren bisita ofizialaren ordua baino apur bat lehenago, martiaren 12an, itxi zituan begiak gure Jose Antoniok. Begi nekatuak, hainbat buruhauste berari emonikoak. Baina artean, ume euskaldunen irribarreak liluraturiko begiak; Euskal Herria batetik bestera ikusi eta arakaturikoak; bere Abandoko, Muxikako eta Arrazolakako, Anbotoko... irudiak izango zituan bere bihotzeko gomutetan gozo-gozo gorderik. Espiritu argi, fin, ameslari eta ekin-tzaile baten ispilu izaniko begiak itxi ziran betiko mundu honetarako, eta hareekin batera, apurka-apurka agortuz eta amatatuz joaniko arnasa eta bizia. Berak eta gutariko askok eta askok sinisten dogunez, *betiko argiak argi egin begio*.

Hemen gauza asko eta ederrak itzi deuskuz. Kili-kili pertsonaiagan hustu eban berak eukanik onena: Euskal Herri euskaldunaren asmoa; euskaldun abertzale baten mezu garbi eta zorrotza. Hor geratzen dira aldizkaria bera, era askotako liburuxkak... Hor geratzen da batez be, agerian ikusten ez danna: orduko umeengan, gaur egun gizon eta emakume gazteak diranengan, oparo erein eban herrigintzako eta euskalgintzako hazia. Multzo harrigarria da, asko da, itzi deuskuna, baina ziur asko gehiago izango da asmoen, ametsen, desiren biz-

kar-zorroan eginkizun geratu jakona. Hori izango da, behar bada, ekintzaile handi eta idealista fin guztien zoria.

Ez dakit euskararen eta euskal kulturaren aldeko pertsonok ondo ohartu garen honek itzi dauan hutsuneaz.

Kili-kili aldizkariak, Jose Antonioren eskutik BIEren (Bizkaiko Ikastolen Elkarte) eskuetara igaro ostean, bizi laburra izan eban. Aldi horretan Andres Osa “Sakona” izan eban zuzendari. Hamahiru ale argitaratu ziran guztira: 234. aleaz hasi eta 247.az amaitu. 2001eko maiatzean ekin eutsan bide barriri eta 2002ko abenduan amaitu. Bitarte horretan, oporraldietan izan ezik, hilero kaleratzen zan era bitara: bizkaieraz eta euskara batuan. 2002ko azken alean zuzendariak agur egiten deutse irakurleei. Azkenik, babesle eta laguntzaileei esker ona agertu aurretik, tristurazko ohar hau dator: “Dagoeneko urte bi igaro dira Kili-kiliren ardura hartu genduanetik, eta esku artean dozuen ale honegaz, bihozminez eta tristuraz, amaitutzat emoten dogu aldizkari honen kudeaketan izan dogun erantzukizuna”. Haren ahotsa, aldizkariaren bidez lau haizetara zabaltzen zana, orduan isildu zan. Ez bere borondatez. Isilarazi egin ebela esan beharko, bizi-iturriak eta laguntzak ukaturik. Egiak egingo dau bere bidea, eta laster egin be, nik uste. *Karmel* aldizkariko lerro urri honeek ez ditut ilundu nahi Kili-kiliren hil-kanpai aireaz, gizon handi baten gomutaz argitu eta alaitu baino. Zergaitik aitatu dodan aldizkariaren isiltzea? Gure gizartean zirkulazioan, komunikabideen ahoan, airean, ez dabilana, baztertu eta ahaztu egiten dala adierazteko. Izan be, harriturik nago zein erraz eta laster ahazten ditugun pertsona handi eta gogoangarriak. Begi bistatik galtzea nahiko izaten da, askotan, ia haren gomuta galtzeko. Jose Antonio hil barri zala, komunikabideei erreparatu neutsen eta ez neban aurkitu uste neban adinako oihartzunik. Biharamunean eta hurrengo egunetan agertuz joan ziran lan eta albisteak tantaka-tantaka.

Aspaldi ezagutu neban. Francoren diktadurapeko egun ilun hareetako baten: Bilboko Manzarredo kalean abade mordo bat eta erlijioso batzuk egozan alkartuta Gotzaindegiko gela hareetan, diktadurak eta Gotzainak hari men eginik, gure Herriaren aurka euken jokaera bidegabea salatzen. Ni be han nintzan, baina nirea hareei alkartasuna adierazteko bisita antzera izan zan gehiago. Eta, holan, hurrengo egunean, jaieguna izanik, abadeak mezen konpromisoak zituen; hareetariko baten ordezkot egiteko, bere autoan hartuta eroan ninduan Jose Antonio Retolazak Meñakabarrena neure auzora. Gerora hartu-emon handia izan dogu eta sarri gogora ekartzen eban berak ni lehenengoz ezagutu ninduanekoa.

### **Biografiaren harian**

Jose Antonioren bizitzaren barri alde askotan irakurri dot. Berberak idatzirik lan autobiografiko nahiko zehatz eta osoak laster argia ikusiko daualakoan nago. Bien bitartean, *Bidegileak* saileko liburuxkan, Asier Astigarragak idatzirikora eta Jose Antonio berak *Kili-kiliren* 163-164. alean idatzi ebanera jo dot haren bizitza-zertzelada batzuk jasotzeko. Labayruk 1993ko abuztuaren 16an egin eutsan omenaldirako idatzirik hitzalditik hartuta dago. “Kili-kili eta biok” dau izenburua. Hemen euskararen inguruko zertzeladak agertzen deuskuz, gehienbat. Ikusi daigun lehenengo, *Bidegileak* liburuxka. Holan hasten da:

*Jose Antonio Retolaza Ibarguengoitia, Kili-kiliren eta euskararen aldeko ekinbide askoren aita, 1929ko ekainaren 6an jaio zen, Bilbon. Manuel zuen aita; ama, Teresa. Hiru anaia ziren etxean: Juan, Luis eta Jose Antonio, gazteena.*

Goazen “Kili-kili eta biok” idazkira:

*Bilbon jaio nintzan. Nire ikastola: etxea. Nire andereñoa: ama.*

*Ni jaiio nintzanean, 1929an, ez zan oraindino ikastolarik Euskal Herrian. Handik urte batzuetara Errotatxueta ikastola sortu zanean, amak eskutik oratu eta bertara eroan ninduan. Bidean, nabiz eta amak txokolatinak erosi, negar egiten neban. Ikastolan ere negar eta negar... Azkenean amak, beste bide bat harturik, Santiago Apóstol ikastetxera eroan ninduan, nire anaia bien ondora. Han "Retolazita"k (balan deitzen eustien nire anaien lagunak) erderaz ikasi eban.*

Jose Antonioren beste zaletasun handietariko bat euskal dantzena izan da. Santiago Apóstol ikastetxean hasi zan ikasten eta lantzen. *Bidegileak* liburuxkak hau dakar:

*Han ikasle zela fraide batek lehenengo eta Víctor Olaetak gero, gaztetxoekin dantzari-talde bat prestatu zuten. Olaetak, bere akademia eratu aurretxoan, bertoko dantzak eta gerra zibileko atzerrialdian Ipar Euskal Herritik ikasita zekartzan Zuberoako maskaradakoak irakatsi zizkion. Irakasle handiarekin hasi zen, bada, lehenengo. Gero, dantzari-taldeko beste lagun batzuekin elkartu eta San Anton elizara joan zen beste talde bat eratzeko.*

*Bilboko Merkataritza Eskolan Merkataritza-Peritajea egin zuen Jose Antoniok. Ikasketok amaitu orduko familiaren arotzeriaren ardura hartu behar izan zuen, Luis bere anaiak frankismoaren erasoari ibes egin behar izan ziolako eta beste anaia nagusiak goi-ikasketak burutu behar zituelako.*

*Aldi hartan D. Claudio Gallastegi zenak bereganatua zeukanez, San Antonen eratu zuen taldean sartuta zebilen, Acción Católica eta.*

Gerratean Muxikara aldatu ziran. Hango giro euskalduna azpimarratzen dau berak, aitaturiko "Kili-kili eta biok" izeneko idazkian:

*Gerrea sortu zan, Muxikara eroan ninduen. Hango mutikoak, euskaldun butsak, nire euskerea entzun eta barre egi-*

*ten eben. Hika egiten eutsen alkarri. Nire belarrientzat berbakera barria. Erderea ere euskaldundu egiten eben bareek.*

Muxikan abadeak be larri ibiltzen zirala dino, Elizak, Francogaz alkartuta, sermoietan erdaraz egitera behartu zituanean. Euskal giro hori dala-eta dino: *Muxika izan zan ba, Muxikako herria, nire bigarren ikastola.* Lehenengoa, Bilboko bere etxea izan zala esan deusku eta, andereñoa, ama.

*Gerrea amaitutakoan, Bilbora ekarri ninduen barriro. Bilbon "agur" berbea esatea ere debekatuta egoan. Agur, en cris-*



*Familia osoa, Jose Antonio anaietarik gazteena da*

tiano, *“adios” zan. Kristau eraz esan behar zan, ba. Bestela, belarrondokoa, aceite de ricino edo diru-nekea, multea.*

*Eskolako eta kaleko erdal giroa etxera eroan genduan hiru anaioak. Aita hilda, ama arduraz eta arazoz josita... Erderea sartu zan gurean.*

Hamazortzi urte zituala Gasteizko Seminariora joan zan Jose Antonio abade izateko. 1947a zan. Euskararen kezka jarraitu eban; han inon baino kezkatuago, beharbada, latina eta grekoa bai, baina euskararik deskuiduan be ez zalako entzuten, euskaldunik ba ete egoan zalantza sortzeraino. Hona berak dinoskuna:

*Euskeraz ba ete ekian, gero, han inork? Jakin bai, baekien. Hara: etxeokak bisita egitera etorten ziranean euskeraz egiten eben ia gebienak.*

Eta berari jazorikoa kontatzen deusku eta halako bisita baten izan eban lotsaria euskara trakestua ebalako:

*Behin Floren Barandikako etorri zan Muxikatik bere seme Iñaki ikustera; bide batez neu. Ha lotsaria! Hareek farafara... berbetan; ni, oster, tikili-takala euskeraz egin ezinik. Ha, egundoko lotsaria! Euskalduna bai banintzan, baina buruko zein baztarretan neukan euskerea?*

Euskaldun oso bihurtu nahi eta ikasteari ekin eutsan bere kabuz eta erdi isilpean:

*Euskal liburu bila hasi eta ozta-ozta hiru eskuratu neban: Zamarriparen Gramatika, Lopez Mendizabalen hiztegi txikia eta Altunaren Ipuinak. Gero, ikas aretoan, gure zaindariak, gure prefektuak, barantz egiten ebanean, nik latin liburupetik Zamarriparena ataraten neban, kukuka, pornografi liburua bailitzan...*

*Holan hasi nintzan neure “vascuence”a landuten. Zergaitik dinodan “vascuence”a? “Euskera” berbea aitatu neban baten Don José Maria prefektuak “se te ve la oreja” esan eusta-*

*lako... “Euskera” berbea “proscriptus” zan aldi baretan.*

*Giro horretan, ba, abalegindu nintzan neure burua alfabetatzen, seminarioan.*

Bestalde, euskal dantzak be ez zituan alde batera itzi seminarioan. Honetaz albiste hau dator *Bidegileak* liburuxkan:

*Eliz ikasketetan ibili arren, dantzarako zuen joera ez zuen baztertu eta Txirinbil izeneko dantzataldean ibili zen seminarioan, Zuberoako maskaradakoak irakasten behinik behin. Egun batean, orduko alkatea eta Bueno Monreal*

*apezpikua bera ere bitarteko zirela, Principal Antzokian egin zen ikuskizun handi batean agertu zen dantzari, zamaltzain. Urteetan eta urteetan Jose Antonio ibili den leku guztietan, aukera izan duenean, beti eduki du dantzari-taldetxoren baten ardura: Gasteizko Seminarioan bertan, Derion, Zamudion (abadegai zela), Arrazolan eta inguruetan (abade egin eta gero), Muxikan, e.a.*

*Abade eginda, Arrazolara bialdu ninduen, dino Jose Antoniok. Baina abenturazko joan-etorri baten antzera kontatzen deusku beste leku baten. Irudimenetik sorturiko kolore biziez jantzirik; baina batzuetan, badakizu errealitateak gainditu egi-ten dauana fantasia. Holan dino:*



*Jose Antonio gaztetan, dantzari*

*Domekea zan. Urtea, 1957. Iñaki eta biok Urkiolara joateko asmoaz Bilbotik Durangora etorriak. Honetan, non agertzen dan VI-75 matrikuladun autobusaurio bat gure begien aurrean. “Horrelako baten behin ibiltarren, Iñaki, edonora joango nintzateke ni, gaur”. “Urrun, ez” erantzun eustan harek. “Durango-Axpe-Arrazola” inoan aurreko aldean eroian letreruak. “Arrazola, non dago?”. “Munduko bazterrean” erantzun eustan esne-kantinak barrura sartzen zibarduanak.*

*Martxan ipini ebenean tarran-tarran egin eban eta dardaran jarri zan. Gero, bide lauan, ondo. Aldats goran... trinkilin-trankalan. Heldu gintzazan, horregatino, Arrazolara. Anboto bertan, zut eta tente. Anboto barrenean, eleizea. Eleizan, kantu-hotsa.*

*“Hona ez zaitue bialduko. Hemen badabe abadea” esan eustan lagunak. Ni, orduan abade barri, nora bialduko zain nengoalako inoan harek hori. Harek igarri ez, baina! Biharamunean, Gotzainak, ARRAZOLARA bialdu ninduan.*

Arrazola, Anboto azpiko herritxoa, bihotzean sartu jakon hasiera-hasieratik. Bera be maitatua izan zan, batez be ume eta gaztetxuen zoramena. San Migeletan, herriko jaietan, egin eban sarrera, era honetara:

– *“Zabarrok neure gurasoak bazine lez maiteko zaituet; helduok, neure anai-arrebak lez; gazteok eta umeok, neure seme-alabak lez...”*

Eta bere kontaeran holan jarraitzen dau:

*Horraino ondo, oso ondo. Baina gero bide erdian klask egin edo... Eta neure burua erdi galduta ikusirik*

– *“... bueno, hurrengoan gebiago!”* –esan neutsen amaitzeko. *Eta albotik beste batek*

– *“... eta hobeto!”*

*Don Martin abadea zan hori esan ebana.*



Hango euskal giro jatorrak zauskada eragin eutsan, baina ulertze aldetik, hasieran, izan zituan hainbat arazo, berak umore finez kontatzen dituanez. Esaterako, aitorlekuan, ahopean berba egiten ebelako-edo, ez ebala ezer ulertzen dino; hareek hori jakin balebe, ilara handiak etorriko itxakiozala... Bestaldetik, umeen aitortzak.

*Eguenetan umeen autortza izaten neban:*

– *Jauna, to egin dot.*

– *Tira, ba! Ez egin gebiago.*

– *Jauna, to egin dot... –beste batek ere!*

*Baina bain txikia eta to egin... ninoan neure kautan.*

– *Jauna, to egin dot. –beste batek ere!*

*Bueno, bueno! Axpeko Don Luisengana joan nintzan berehala.*

– *To egin? Alkarri bika egitea dok hori, gizon! –erantzun eustan.*



*Arrazolako umetxoekin*

Hurrengo domekan esan eutsen gurasoei, nahiko pekatu egoala munduan, gu barriak eta ez diranak asmatzen ibiltzeko. *To egitea* euskara jatorra dala. Halan, sakristian sartzen zala, dino, zapatuetan emakumeak eliza garbitzera etozanean, hareei “ño” egiten entzuteko. Beraz, Jose Antonio, era berean, irakasle eta ikasle izan zan Arrazolan. Kristoren Barri Ona, dotrina (katekesia) irakasten eutsen hango eliztarrei batetik eta euskal kulturazko gauza asko bestetik, batez be euskal dantzak. Berak, barriz, euskara jatorra, herri euskaldun eta baserri giroko baten pentsaera eta izaera ikasiko zituan hareengandik. Horregaitik hau esango deusku: *Muxikako herria nire bigarren ikastola izan bada, Arrazolako herria Unibertsitatea izan dot.*

Arrazola, ba, Bilboko kalekume batentzat beste mundu bat aurkitzea legez izan zan; bere burua osotzeko falta jakon beste erdia aurkitzea legez. Euskaltzale eta abertzale kaletar harek bere bihotzeko ametsak, gogoak betetzeko leku aproposa aurkitu eban han. Ekintzen eta asmoen zurrunbiloan sarturik, eta gatzetasunak bultzaturik, hainbat gauza erakarri eta polit sortzen ziran. Horreen artean polita eta gogoangarria izan zan, eliza haretan munduan euskaraz emon zan lehenengo meza emotea. 1959ko ekainaren 21ean izan zan, Erromak tokian tokiko hizkuntzetan meza emoteko baimena emon baino urte batzuk lehenago. 1959an Arrazolako elizan emon zan munduko lehenengo euskarazko meza hori, jakina, ez eban emon Jose Antonio Retolazak, komunikabideetan orain esan dabenez; ez, Jose Antoniok ez eukan orduan euskaraz meza emoteko baimenik; bai, oster, Frantzisko BALLESTER VIÚ jaunak. Hau Derioko Seminarioan egoan irakasle. Honek Ekialdeko erritua erabiltzeko baimena eukan eta erritu horri jarraituz munduko edozein hizkuntzatan emoteko baimena be bai. Hori jakin ebanean, Arrazolako abadeak, Jose Antonio Retolazak, harengana jo eban eta poz-pozik onartu eban. Euskarazko mezako testuak Karmelo Etxenagusiak prestatu zituan Seminarioko euskarazko ikasle

teologoak lagunduta. “Meza hori kanpandorreko megafo-  
noak lau haizetara zabaldu eben eta danean entzun zan.  
Anboto tontorrean... eta Zeru Goian”, dinoe honen eratzai-  
leak. Handik 43 urtera barriro batu ziran orduko protagonis-  
ta batzuk, 2002ko ekainaren 9an. Jakina, euskal meza nagu-  
sia izan zan egun horretan be jaialdi horren ardatza; horren  
ostean, orduko argazkien erakusketa eta pelikularen emonal-  
dia; gero, oroitarria jartzea. Marmolean grabaturiko oroita-  
rriak hau dino:

**ELEIZA HONETAN**  
**IZAN ZAN LEHENENGOZ**  
**MUNDUAN**  
**MEZEA EUSKERAZ**

1959. URTEAN  
BIZANTZIAR-MELKITA  
ERRITUAN

Honetaz ez dot gehiago ezer idatziko, aldizkari honen  
240. zenbakian dago zehatz-mehatz azaldurik-eta (ik. *Karmel*  
2002-4).

Arrazolan abade zala, Elorrioko Funcor Ikastetxeko zuzen-  
dari be bazan. Eskola ordutik kanpo euskara ikasgai jarri  
eban. Hori ez zan, antza danez, herriko agintariaren gogoko  
izan eta Paulo Gulpide gotzainagana jo eban salaketa jartzera,  
ikastetxe hori Elizarena zalako. Gotzainak handik alde egiteko  
agindu eutsan. Herri-agintarien mende dagoan gotzainaren  
mende ez ebala jarraitu nahi eta Elorrioko Funcor ikastetxea  
eta Arrazolako parrokia itzirik, Jose Antonio bere etxera, Bil-  
bora, joan zan gaixorik egoalako aitzakiaz eta handik Madrile-  
ra, han psikopedagogia ikasketei ekinez. 1963ko abenduan,  
Vatikanoko II. Kontzilioak herri-hizkuntzak onartu zituan litur-  
giarako. Baina Estatuko hizkuntza ofiziala, hau da, gaztelania,  
hartu nahi eben askok herri-hizkuntzatzat. 1965eko urtarrilean

hasiko ziran Bizkaian liturgia era barriz egiten, baina Jose Antoniok jakin eban gatzelaniaz, espainolez, izango zala aldaketa hori. Autu hori erabilen Don Klaudiok eta biak; golpe latza izango litzatekeela hori gure hizkuntza eta kulturarentzat. Albeit lasterren Bilbon zer edo zer egin beharko zala hori halan izan ez zedin. Hiri nagusia izanik, Bilbok izan behar ebala eredu Bizkaiko gainerako herrirentzat. Irakurgaiak ziran gehienbat falta ziranak herri-hizkuntzan eta Jaime Kerexetaren itzulpenak erabiliz, Jose Antoniok berak prestatu zituan. Erdarazko Irakurgaien molde berean inprimatu zituan eta, Gotzaindegiko Liturgia Batzordeak bidaltzen ebala iragarritz, Bizkaiko eliza guztietara zabaldu eban euskarazko itzulpena. Gotzain jaunak esker oneko hainbat eskutitz eta dei jaso ei zituan... Don Paulo Gurpide zan gotzain orduan eta gozoa jarriko zan!

1965eko Urtebarri egunerako, ustez, guztia prest eukan Jose Antoniok. Hasieran San Bizente bere parrokia etorri jakon gogora. Izan be, San Antonen baeben nahiko buruhauste lehendik be. Baina San Bizente parrokian ezin zan; berandu arteko orduak hartuta egozan eta ez zan bitartetxu bat be gertzen. Besterik ezean, San Antonera. Azkeneko meza 12:30ean zan eta horren ostean izango zan euskarazkoa. Ez aldare nagusian, alboko Begoñako Amarenean baino. Jende gitxi etorriko zalakoan erabaki eben holan apal-apal egitea. *Txinpartak* antzerki-taldeko gazteei eskatu eutsen ahoz aho zabaltzeko euskal meza izango zala ordu batetan. Heldu zan eguna. Jose Antonio sakristian zan liturgi-apaingarriak janzten. Han izan zan izatekoa! Jende multzo ikaragarria batu zan San Anton inguruan.

Aurreko mezakoak, barrukoak ezin urten eta kanpokoak ezin sartu. Eliz atari inguruan tupust egin eben batzuk eta besteak eta bultzaka eta zarataka jardun eben jendezko baso haretan, kanporako eta barrurako bidea aurkitu ezinik. Halako baten argitu zan bidea, eta bake santua. Hasi zan San

Antongo lehenengo euskal meza. Jendea pozarren eta hunkiturik, begiak malkoa eriel. Berandu zan eta meza isila, sermoi bakoa izango zala erabaki eben abade biak, baina giroa pil-pil eta halako jendetza aurrean, Don Klaudiori gainez egin eutsan barruak eta sermoi gartsua egin eban unean uneko sentimenduen esanera...



Hurrengo astean be barriro batuko zirala iragarri eben eta, ia ohartu barik, hauxe izan zan San Antongo euskal meza ospetsuaren hasiera. Hainbat denboran, zapatu guztietan etorri ohi zan Jose Antonio Madriletik domekako meza horretan esku hartzeko. Ospe handia hartu eban meza honek. Gero 12etan ipini zan eta Don Klaudio bera izan ohi zan meza emoile eta sermolari.

### **Kili-kili pertsonaia**

Madrilen igarotako aldia ez zan egonean egotea Jose Antoiorentzat, bestera baino: “Madrilen psikopedagogia askorik ez neban ikasi, baina euskerea ikasi eta irakatsi, bai”, dino berak. Eta horrez gainera, haren buruak, irudimenak, artista-senak lanean ziharduan bizi-bizi, sortze-lanean. Hango ikasketak baliagarri izan jakozan sortze-lanerako. Eskultore baten antzera, bere barruan molde emon nahi eutsan pertsonaia barri bati. Amets, asmo, bihozkada eta gogoeta guztion fruitua izango zan, handik pixka batera, Bilboko San Antongo zubi ondoan kukuka jaio zan pertsonaia. Mutiko euskaldun jator baten traza eukan kanpotik. Baina euskara kontuan jakituna zan, Euskal Herriko neskato-mutikoen laguna eta maisua. Egin-eginean be, Jose Antonio Bilboko kaletar adeitsu eta finak, beti goitik behera trajez eta gorbataz dotore janzten zanak, baserritartxu peto-peto bat, kaiku, abarka, txapel eta guzti, sortu eban zeregin horretarako. Sortzailea eta pertsonaia alkarren osagarri izatekoak dirala dirudi. Subkontzienteak eraginda egingo eban halakoa, ala berariaz eta nahita egingo eban? Halakoa edo holakoa, Kili-kilik maisu-lan handia egin

eban Euskal Herriko ume eta gaztetxoek artean. Pertsonaia honetaz lau bat idazlan idatzi ditut aurreko urteetan *Karmel* aldizkari honetan. Hareetariko bitan Kili-kili bera hartu neban gai; beste bietan, Kili-kili pixka bat zeharka agertzen da. Batak *Gora Kili-kili* dau izenburua eta besteak “Kili-kili” neska-mutiko euskaldunen maisua. Lehenengo lan horretatik eka-riko ditut ataltxo batzuk:

*Ume euskaldunen maisu aparta; hareei euskaraz bizi izaten, euskaraz barre egiten, euskaraz olgetan irakatsi deuten. Honezkerok badira 35 bat urte Bilboko San Antongo zubi ondoan jaio zala. 1966an etorri jakun mundura. Aldi latzak ziran hareek; oraingoak be ez asko gozoagoak. Ezkutu-gordeka eta kukuka hasi jakun handik. Ezin, ba, erronka handirik egin. Bildurra eta eza zan nagusi; debeku eta madarikazioak gainean; zirrikitu txikiak erabili behar agintarien zigorrari ibes egiteko. Zirrikitu horreek eliz gela eta antzeko lekuak ziran. Holan hasi zan Kili-kili lehenengo pausotxuak emoten.*



*Kili-kili aldizkariaren bigarre aldia: Lan ta lan koadernoak*

*Baina eragozpenak eragozpen, mutikoa osasuntsu egoan. Inoren aurrean kikildu barik, bere nortasuna geroago eta garbiago erakusten hasiko jaku. Beti be bere osabearen eskutik, lagun barriak egingo ditu; lagun euskaltzaleak. Lehengusu-lehengusinak izango dira honeek. Holan, apurka-apurka familiarte barria batuko da Kili-kiliren inguruan.*

*Herrietara joango da; ume euskaldunengana. Honeei euskara darie berez-berez, baina euren bizkuntzan eskolatu barrik dagoz. Kili-kilik irakatsiko deutse euskaraz irakurtzen eta idazten. Horretarako, koadernotxu batzuk erabiliko ditu: LAN TA LAN. Baina barek, ume euskaldunak euskaraz eskolatzeaz gainera, amets ugari zituan bihotzondoan zirika. Horreei guztiei bide emon nahi eutsen eta apurka-apurka, kopau txiki eta gozotan, bere laguntxuei eskaini. Horretarako bitartekoa Kili-kili aldizkaria zan. Abagunerik txikiena agertu jakonean, lehenago itxita egoan ate hori zabaldu zanean, ez eban auke-  
ra alperrik galdu. Kili-kili Euskal Herri osoko umeen lagun bihurtuko da; ume euskaldunen teilatu bako ikastola. Eskolako lau horma barruan jardutea ez dau gogoko. Haren ikastola bizitza bera baizen zabala da. Ez dau maite toki itorik. Aldizkaria izan dau Kili-kilik bere mezua zabalteko tresnarik onena. Baina honekin batera baditu beste hainbat lagungarri be: gaztetxuentzat ateratako liburuxka interesgarriak, “Kili-jaiak”, “Kili-irratia”, sariketak, txangoak Euskal Herrian zehar, zozketak... Holan, txiri-txiri, lan eta lan, ekin eta ekin aurrera egin dau. Euri ona lurrak gozo-gozo hartzen dauanez, balantxe hartu dabe ume euskaldunak haren mezua. Honezkero Kili-kili gure historiaren zatia da, baina ez lorratz batzuk itzita atzean geratu dana, eginez-eginez doan historia bizia baino.*

Goian aitaturiko beste lanetik ataltxu hau ekarriko dogu hona:



b

KILI-KILIren SORTZAILEARI  
OMENALDIA EUSKALTZAINDIAK



*Egia esan, Kili-kili, umeen artean tartekatuz, hareekin jolas eginez, hareei irakurgai politik eskuratuz, tokian tokiko euskara nabiz batua txukun eta dotore berba eginez da maisu. Ez da berbalapikoa. Ez da erretolika luze eta gogaiarrietan denbora emotearen zalea. Kili-kilik egin egiten dau. Bere uste edo aburuak, erdi-olgetan irribarrez eta umorez umeekin egitearen aldekoa da. Inguruko erdarak be jakin arren, euskara hutsez dibardu beti. Bizkaieraz eta batuaz. Erdaldunen bat aurrez aurre dauanean be, euskaraz egiten dau eta ez dau besterik abotan hartzen. Ez da batetik bestera, euskaratik erdarara, saltoka ibili obi dan kaskarina.*

Umeen gogoia zein dan ondo begiratzen dau; zerk erakartzen dituan hareek. Ez dago luzaro aztertu beharrik, berez-berez agertzen dabe-eta. Mundu zabaleko komikiak oso atsegin dituela ohartu da. Ospetsuenak ASTERIX eta MORTADELO eta FILEMON. Kili-kilik komiki honeek eskaintzen deutsez bere irakurle txikiei euskarara itzulirik. Halan be ez dira itzulpen soilak. Kili-kilik ez deutse euskal jantzia bakarrik ipintzen, baita, ahal dala, euskal muina edo euskal espirituia be. Mundu zabaleko komikiak euskarara itzuliaz batera, hango pertsonaiak euskalduntzen ahalegintzen da. Kili-kilik, jakina, euskara maite-maite dau. Euskara bihotzetik pasatuta gero eskuratzen deutse umei. Euskara ona, txukuna, betiko euskara, albait garbiena. Mutiko hau, izan be, ezertan bada maisu, euskarana da...

Aldizkariaren bizkarrezurra munduko komiki ospetsuak dira. Zergaitik munduko komikirik ospetsuenak euskaraz, originalak, bertan sortuak eta asmatuak egin beharrean? Gure umeak munduko komiki horreek barneratuak dituelako; beraz, barneraturiko horreei buelta emon eta euskaraz euskal espirituaz eskaintzea da kontua.

Dana dala, Kili-kilik arlo zabala hartzen dau. Badau bertan sorturiko komiki bat edo beste be, esaterako, *Erramun Basajaun*. Horrez gainera, gure historia, gure pertsonaia historikoak, oraingo pertsona askori eginiko elkarrizketak. Hor

agertzen jakuz kirolariak, kantariak, dantzariak, artistak, eskultoreak, idazleak, irakasleak... Kili-kilik mezu ugari zabaltzen dau: albisteak, gure Herriaren izaera, ohiturak, kultura, aurre-tikoengandik jatorkuna...

## Omenaldiak

Jose Antonioren hainbeste urtetako lana ezin oharkabean igaro. Aintzat hartua eta goratua izan da. 1975ean euskaltzain urgazle egin eben eta 2000n euskaltzain ohorezko. 1984an Euskararen Aholku Batzordeko kide aukeratu eben. 1996an EIZIEK ohorezko bazkide izendatu eban. Hainbat omenaldi be jaso izan ditu; horreen artean, 1993an *Labayruk* eta HABEK eginikoak; 1993an, Muxikako herriarena; Arrazolan, 2002an, 43 urte lehenago han emoniko munduko euskarazko lehenengo mezaren gomutaz, eginiko ospakizuna eta plaka ezartzea be omenalditzat hartu daiteke.

Dana-dala, Jose Antoniok Kili-kiliren bitartez zabaldu ohi eban mezua ez zan guztien gogokoa. Jakina, Euskal Herri euskaldunak eta abertzaleak arerio ugari ditu, batez be Espainia zaleen artean. Gainera, Kili-kilik, euskaldun izaten jarraitzeko, Euskal Herriak bere burujabe edo independente izan behar dauala esan izan dau beti. Beraz, Kili-kilik, omenaldiak gorabehera, ez dau bere burua saltzen, ez da isiltzen eta aurre egin deutse, motiboak ikusi dituanean, agintari nahiz politikariei. Eta Kili-kili begitan hartua eta jazarria izan da.

## Azken gauzatxuak

Ezinbestean, Kili-kili asko aipatu eta goraiatu dogu lan honetan. Izan be, Jose Antoniok hor jarri eban, goian esan dogunez, bere onena, baina Kili-kilik ez dau agortzen Jose Antonio Retolazaren bizitza.

Bestalde, ha hil barri zala komunikabideetan agertu ziran gauzatxu bi ez dira zuzenak: bata, gorago be esan dogu, Arrazolan 1959ko ekainaren 21ean euskaraz eta bizantziar-melkita

errituan emon zan meza ez eban Jose Antoniok emon, baina bai antolatu. Bestea, hau da, *Jesukristoren Barri Ona* eta *Eguneroko meza* liburuak emon zituala argitara be ez da guztiz zuzena. Material horreek baziran lehendik euskaraz. Jose Antonio-ri kezka sortu jakon, liturgia herri-hizkuntzetan egiteko baime-na etorri zanean, lehengo latinaren ordezt, Espainiako hizkuntza ofiziala, gaztelania, aukeratuko zala eta... Orduan, Jaime Kerretaren Bibliako itzulpeneko testuak hartu eta inprimategira eroan zituan, ordurako prest eta liburu txukunean egozan gaztelaniazko irakurgaien formatu berean argitaratzeko aginduz.

Jose Antonio Retolazak, aldizkaria bieren (Bizkaiko Ikastolen Elkarte) eskuetan izten dauanean, agur egiten deutse gaztetxo euskaldunei, euskaltzale lagunkideei eta Euskaltzaindikoko jaunei. Euskaltzaleei agur egitean esanikoetatik lerro honeek ezarriko ditut hemen:

*Gogora ekarri gura zindukedaze guztiak orain, bilak eta bi-ziak, eta guztiak banan-banan izendatu. Hori ezinean, bibotzak dinost hiru mila izendatu ezin badodaz, hiru behintzat, hiru honeek, aitatzeko: Kili-kili jaiio zanean titia emon eutsan Pili Zuazo; handik laster, irudiz jantzi eban Lander Gallastegi, eta gero, eskutik oraturik, herriz herri erabili eban Iñaki Egurrola.*

*Labayruk* eginiko omenaldiaren amaieran, Ander Manterolak esaniko esaldi batzuk ekarriko ditut hona eta nik neuk be horrekin amaituko dot:

*Jose Antonio Retolazak toki gorde bat, aparteko leku bat merezi dauala euskalgintzan esango neuke.*

*Kili-kilik ez ditu euskaldundu bakarrik egin umeak; irudietan murgildu ere egin ditu.*

*Heziketa inoiz be ez da ebidentzia, baina bazia ereinda dago, eta frutuak hor dira. Esaterako, gaur zu omentzen zaituenetariko asko zure ikasbidean hazi izan dira. Hori dala uste dot nik omenaldirik onena.*

*Luis Baraiazarra Txertudi*